



CURSOS ONLINE EN DIRECTO- Ciudad Educadora: Ayuntamientos y Escuela inclusiva



Ira. 29 2020

Kod. X83-20

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2020

Jarduera mota

Eskola

Data

Ira. 29 2020

Kokalekua

Online zuzenean

Hizkuntzak

Gaztelera

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

2005. urtean, Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailak hezkuntza esku hartzearen ebaluazio bat egin zuen. UPV/EHUko Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak (HIDM) Sailak egindako ebaluazio horrek esku hartzearen inpaktua berretsi, eta ezusteko emaitza bat eman zuen: udal hezkuntza programen «eragin konpentsatzailea».

Hezkuntza esku hartze ez-formalen eta desberdintasunen konpentsazioaren arteko korrelazio horren harira, hainbat ikerketa abiarazi ziren, eta horien artean, hiriko ikastetxe guztiek egindako «diagnostiko ebaluazio» guztiei buruz 2015ean eta 2018an egindako analisiak nabarmentzen ditugu.

Ikerketak erakutsi zigunez, irakaskuntza eta antolakuntza aldatzea xede zuten berrikuntza proiektuen aplikazioak emaitzak hobetzen zituen eta, beraz, hezkuntza sistema beraren kalitateak ere hobera egiten zuen.

Esku hartze lerro horren barruan, 2016an, Udal Hezkuntza Zerbitzuak sare tematiko bat definitzea proposatu zien Hiri Hezitzaileen Estatuko Sareari (RECE) 2016-2018 urtealdian eduki bat lantzeko («Zer egiten dugu udalek desberdintasunak konpentsatzeko»), hiri hezitzaileek desberdintasunaren konpentsazioan duten protagonismoari buruzko gogoeta egiteko. Diagnostikoari, esku hartzeari eta ebaluazioari buruzko gogoeta horretan, 14 hirik parte hartu zuten, eta lagungarria izan zen udal hezkuntza programa batek zer baldintza bete behar dituen definitzeko, desberdintasun horietan eragiteko eta aukera berdintasun handiagoa bultzatzeko. Antzeko metodologia batez, 2018ko ekainetik 2020ko martxora bigarren sare tematiko bat ari da garatzen: «Eskola segregazioa eta hiri hezitzailea». Oraingoan, eskola segregazioaren fenomenoari lotutako ondorioak arintzen laguntzeko moduak definitzen saiatzen ari gara estatuko 25 hiri.

Testuinguru horretan, Uda Ikastaro honetan planteatutako edukiaren bidez, udalek hezkuntza inklusiboaren garapenean nola lagun dezaketen aztertu nahi da, Hiri Hezitzaileen Gutunean jasoko printzipioetan oinarrituta.

Ikastaroan, gure hirietan fenomeno horri aurre egiteko garatzen ari diren hainbat esku hartze eredu azaltzeko eta aztertzeko aukera izango dugu.

Helburuak

Erraztasunak ematea, udal hezkuntza politikak inklusio faktoreak izan daitezen.

Udal gobernuei dibertsitateari bere dimentsio guztietan erantzuteko aukera emango dien hezkuntza esku hartzeko ereduak proposatzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2020-09-29

09:00 - 09:15	Presentación del Curso
09:15 - 10:45	““Ciudad Inclusiva, Ciudad Educadora”” Álvaro Marchesi Ullastres Universidad Complutense de Madrid - Profesor emérito de Psicología en la Universidad Complutense de Madrid
10:45 - 11:00	Atsedena
11:00 - 12:30	““Plan marco para el desarrollo de una Escuela inclusiva 2019-2022”” Izaskun Eskubi Goienetxe Gobierno Vasco (Departamento de Educación) - Responsable del grupo de Escuela Inclusiva y NEAE del Berritzegune Nagusia
12:30 - 14:00	Mahai ingurua: “Inclusión y atención a la diversidad en tiempo de crisis”” Nelida Zaitegui de Miguel Gobierno Vasco (Departamento de Educación) - Presidenta del Consejo Escolar de Euskadi Álvaro Marchesi Ullastres Universidad Complutense de Madrid - Profesor emérito de Psicología en la Universidad Complutense de Madrid Izaskun Eskubi Goienetxe Gobierno Vasco (Departamento de Educación) - Responsable del grupo de Escuela Inclusiva y NEAE del Berritzegune Nagusia

Zuzendaritza



Carlos Angulo García

AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

Carlos Angulo García Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko teknikaria da 1988tik. Gaur egun, "Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea" proiektuaren eta "RECE 2020 ekintza-planaren" garapena koordinatzeaz arduratzen den lantalde bateko kide da. Vitoria-Gasteizek, RECE (Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarea) koordinatzen duen hiria den aldetik, 2022ko martxora arte gidatu behar du.

Irakasleak



Izaskun Eskubi Goienetxe

Berritzeguna Nagusia

Pedagogian eta Psikopedagogian lizentziatua. Psikomotrizista. Nire lan-hastapenak Zereginen Ikaskuntzarako Gela (ZIG) batean izan ziren, tailerreko irakasle gisa, eta gero orientatzaile izatera igaro nintzen bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Gaur egun Berritzegune Nagusiko laguntza-zerbitzuko Eskola inklusiboaren eta HLPren taldeko arduraduna naiz.



Álvaro Marchesi Ullastres

Irakasle Espainiako hainbat unibertsitatetan. Hezkuntza Ministerioako zuzendari nagusia eta Estatu-idazkaria 1986tik 1996ra. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Iberoamerikako Estatuaren Erakundeko (OEI) Idazkari nagusia 2007tik 2014ra. Hezkuntza Ministerioaren hezkuntza-inklusioko proiektua bultzatu zuen 80ko hamarkadan, eta LOGSErena laurogeita 90eko hamarkadan.



Nelida Zaitegi de Miguel

Consejo Escolar de Euskadi

Nélida Zaitegi de Miguel, maestra y pedagoga, nació en Abanto Ciérvana (1946). Comenzó en 1967 como docente en la escuela pública, siendo también directora, inspectora de Educación y responsable de programas de innovación educativa del Dpto. de Educación del G.V.: Convivencia y paz, Habilidades para la vida y Formación de equipos directivos. Ha coordinado la aplicación del "Contrato-Programa por una Nueva Educación" en varios centros de toda España. Ha sido la presidenta de FEAE Euskadi (Foro Europeo de Administradores de Educación), miembro del Consejo de Innovación Social de Innobasque, directora de la revista Organización y Gestión Educativa, vicepresidenta de la Asociación CONVIVES y directora de su revista, y formadora/asesora tanto en centros educativos como de formación de profesorado de diferentes CCAA. Fue miembro del del observatorio ESTATAL de la Convivencia del 2011

al 2020 y presidenta del Consejo Escolar de Euskadi., desde el 2017 al 2020.

Matrikula prezioak

MATRIKULA

2020-09-29 ARTE

MATRIKULA DOAN

0 EUR

Kokalekua

Online zuzenean

Online zuzenean